


ZER

361n. zenbakia • 2010 Ekaina



www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

Gorazarrea Euskerazaleak Alkarteari



Lea bailara
ezagutzen



Adiñekoakaz
Italiaren bealdetik
txangolari IV

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2010-2011 IKASTURTEA

BIZKAIERA 43. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen, eguasten eta barikuetan edo
astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 423 53 22
Bilbao

Asiera: urriaren 11an

43.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes, miércoles y viernes,
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 423 53 22
Bilbao

Comienzo: 11 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eigu! Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBK'ra eta ordaindu 25 €. Ez dozu ezer be idatzi bear. Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena. Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

www.euskerazaleak.biz

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

www.flashcomposition.com



Gorazarrea Euskerazaleak Alkarteari

Mendebaldeko Kultura Alkarteak, Euskerazaleak Alkarteari oartu eutsen, ainbeste urteetan Euskeraren alde egiten eban onurazko lanagaitik saritu egin bear ebala.

Eta orretarako toki, eguna ta ordua emon eutsosan Egurrola tar Iñakiri.

EGUNA: 2.010ean Lorailaren 8an

ORDUA: 12'45 etan.

TOKIA: Bilbaoko Enparantza Barrian, Euskaltzaindiaren Aretoan.

Euskerazalearen aldetik: oneixek joan giñan:

Lendakaria: Barroeta ta Amorrortu tar Klaudio

Idazkaria: Atutxa eta Agirre tar Paul

Egurrola ta Madariaga tar Iñaki eta beste bazkide zintzo batzuk.

Izlaria: Larrea ta Beobide tar Anjel.

Eta **Mendebalde-taldekoak** esan eben orduan Euskaltzaindiaren Aretoan egon ziran itxaroten.

Mendebaldeko Lendakaria Barrutiatar Eneko Euskerazaleak Alkarteko Lendakari, Idazkari eta Izlariari deitu euskun maian ezarri gindezan. Eta beren aldetik aurkezpena egin da gero, Larrea ta Beobidetar Anjelek, labur baiña zeatz eta berak daukan atsegintasunagaz esan euskun **Euskerazaleak** Alkarteak edestian egin eta egiten dauzan lanak Euskeraren alde.

Ona emen Larrea tar Anjelen berbak:

Egunon guztioi.

Euskerazaleak Alkartetik, Iñaki Egurrolak zeatz-meatz, eskatu deust gorazarre au irakurtzea. Eta nik gustu andiaz orixe egingo dot.

Sortu barria zan Bilbaon **EUSKERAZALEAK ALKARTEA**, Euskerea Erabiltea bere elburu lez artu eban elkarte. Sortze ori 1967an izan zan.

Eta alkarre onen lenengo ekintza, ikastola, eskola eta ikastegi guztietan euskerea erabilteko eskaria egitea izan zan, irakaskintza-mailla guztietan euskera erabiltekoa.

Alkartearen elburuen barruan oso-osoan sartzan zan eskaria zan: Zelan lortu euskerea erabiltea ikastola ta eskoletan euskerea debekatuta egoala?

Eta ekintza orren barruan lenengo egin ebena, agiri bat zabaldu eta erritarren aldetik izenpetzea izan zan: Irurogei milla bizkaitarrek, geienak Bilbaotarrak, izenpetu eben agiri ori. Izenpetzailleen zenbakia ba-zan Madriden eragiña lortzeko bestekoa.

Izenpetze guztiak bear zan lez moltsotuta, bost liburu lodi osotzen ebezala, Madridera joan ziran **EUSKERAZALE** ameslari areik, orduko **EUSKALTZAINDIA** be izenpetzaille zala.

Madriden Lenengo Maillako Irakaskintzarako Arduradun zan Eujenio Lopezegaz egon ziran. Au galiziarra zan eta emendik joandako euskaldunak bere izakera ori artu eben kontuan aurkezkunde egin ebenean. Onela, gitxi gorabehera, berba egin eutsoen: “Zu galiziarra zara eta zalantza barik zure etxean galiziarren izkuntza erabiliko dozu”. Eta berak baietz esan ondoren onelan jarraitu eben: “Gu euskaldunak gara eta geure etxeetan euskerea erabili nai dogu, baiña ori ezin dogu lortu gure umeak ikastokietara doazenean erderaz berba egin bear dabelako. Orregaitik dakargu eskari au gure ikastokietan euskerea erabilteko eskaria, eta asko poztuke gintzakez eskari au onartuaizateaz. Gugaz batera agiri au izenpetzen dabe irurogei milla euskaldunek eta beste euskaldun asko eta askok”.

Arreta aundiaz entzun eutsen Eujenio Lopez jaunak eta ori lortzeko alegiña egingo ebala berbea emon be bai.

Olakoetan beti jazoten dan lez, ez da gauza erreza eskari arek noraiñoko indarra izan eban jakitea. Gero gauzak asko aldatu dira eta eskari ori be bete da,

zorionez, zergaitik edo agaitik. Baiña iñok ez dau ukatuko egoera aretan eskari ori oso egokia izan zala eta ondoren batzuk beintzat, zalantza barik, lortu ebazala: Bilbaotarren eta bizkaitarren ardurea bizkortu euskerearen alde jokatzeko, erakundean eginbearra argitu errien eskubideak eta onein artean izkuntza erabilteko eskubidea aintzat artu dagien, irakasleen buruak argitu eskubide au ikusten asi eitekezan, gurasoen gurariak bideratu euren eskubide au aldezten asi eitekezan eta, bear bada, lege-giroa bera aldatzeko bideak artzen asi.

Orain-arte esanekoagaz lotuta, barri edo albiste au aitatuko dogu: Madrid’ko ABC izparringitik artua da, 1968ko urrillaren 31koa eta alboan daukan laburpenak onelan diño, euskeratu ezkeror: “Euskaldunen izkuntza eskolara. Irurogei millak izenpetu dabe Euskaltzaindiaren eskariari indarra emonez, irakaskintza-mailla guztietan euskerea irakastea lortzeko. Idazki au Euskerea Erabiltearen Aldeko Alkartearen Batzordeak aurkeztu dautso, Lenengo Maillako Irakaskintzaren arduradun dan Eujenio Lopez jaunari”.

Orduan ez egoan euskera emoteko irakasle titolorik, au zelanbait konpontzeko, monitore tituloa edo emon zan eta **EUSKERAZALEAK ALKARTEKO** Xabier Peña eta Karmelo Etxenagusia izan ziran arduradunak. Aibat izan ziran jaso ebenak titulu ez ofizial ori baina konpromiso bategaz: etorkizunean Magisteritzako diplomaturera lortu bear ebela, eta geienak bete egin eben.





Beste alde batetik, zera esan bear da: Kili-Kili al-dizkariaren babes legala urte batzutan, Francoren denporan, egon zala EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN eskuetan.

Euskerazaleak alkartearen argitalpenak

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK ez dau inoz galdu bere elburura doan bidea: Euskerea erabilten laguntzea, Bizkai guztiari, baiña batez be Bilbao uriari.

Baiña zer egin euskerea erabiltea lortzeko? Irakurgai errezak argitaratu, iztegi labur eta errez bat eskuratu, euskera ez dakienari laguntzeko elizti edo gramatika erreza eta laburra eskiñi, euskera errezean idatziak diran ipuiñak apain-apain idatzi, giza-soiñean diran osagaien izenak liburu baten irudi ta guzti ipiñi, egunaren barruan eta toki bakoitzean erabili bear diran alkar-izkerak erderaz eta euskeraz liburu baten batu eta, zelan edo alan danaren laburpena dan elizti edo gramatika oso bat aurkeztu ikasi nai daben guztiak.

Oreixe dana egin dau EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, iparra non dagoan agertzen dauan orratzari beti jarraituz, euskerea erabilteko erreztasunak eskintzen beti.

Amazortzi liburu dira gure Alkarteak argitaratu dauzanak. Guk amabi liburu aitatu doguz emen, bakoitza zelakoa eta zertarako dan agertuz:

1) Euskal irakasbide laburra (1.º maila)

Orixen da izen errezagoaz ezagutzen dogun Xabier Peñaren gramatika. Bearrezko gauza litzake Xabier Peñak Bilbaon euskerea zabaltzeko egin eban lana azaltzea, baiña gure elburua liburuak aitatutea dala kontuan izanik, itzi dagigun alde batera zeregin bearrezko ori. Eskertzekoa benetan, bera giputzatza izanik eta giputzak bizkaieraz berba egiteko ta idazteko gaiztasun aundiak izaten dabezela jakiñik, gizon aintzagarri onek Bilbaon egin eban lana.

2) Iniciación al estudio del euskera (azpi-izenburua: serie de lecciones preparadas por euskerazaleak, asociación para el fomento del vascuence, para: cursos radiofónicos, clases elementales o trabajo personal).

Ona emen beste ikasbide bat, Xabier Peñak eta Jose Antonio Montianok idatzia. Liburu txiki onek, 142 orrialde baiño ez dira, ez dauka zer galdurik.

3) Nora zoaz

Ona emen euskerea ikasteko beste bide bat, ikusiz eta pozik euskerea ikasteko asmoagaz idatzitako liburuak.

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, sariketa bat eratu eban euskerea ikasteko bide barri bat biltzeko eta saria orduan Bizkaiko Aurrezki Kutxa zanak eskiñi eban, 50.000 pezetako saria eta irabazle Goikoetxeatar Iñaki aita josulaguna izan zan. Eta 1969 izan zan argitaratu zan urtea.

Liburu onetan aurrerapide aundi bat aurkitzen dogu: Izkuntza irakasteko bide lez irudiak artzea.

4) "Ikas" iztegia

Alkartek argitaratu dauzan liburuen artean auxe izango da geien saldu dan liburua.

Iztegiaren egilleak Jose Antonio Montiano eta Jose Ramon Urkijo dira.

Ez uste izan, gero, iztegi aundi bat danik, ez dauka Azkueren edo Akesoloren iztegiak dauken lako elbururik, iztegi au ez da besterik euskera ikasten dabilleniari laguntzea baiño eta orretarako bear-be-arrezkoak diran itzak artzen dauz.

Aldean eroateko lako liburu txikia da. Guztiz 10.000 itz dakazela diño asieran eta itz orreik Bizkaieratik eta Gipuzkoeratik artuak dirala.

5) Alkarrizketa

Liburu lagungarria euskera ikasten asi diranentzat. Gramatika ondo menperatu dauanak laguntza aundia aurkituko dau liburu onetan.

Liburu au Abeletzek eta Xabier Peñak atarea da. Eta darabillen euskera, errikoa, garbia eta erreza da.

6) Giza-soiña

Goikoetxeatar Iñaki Aitak idatzitako beste liburu bat daukagu eskuetan. Itzaurrean Aita Iñakik berak ikastolen ugaritasuna gogoratzen dau eta liburu onek utsune bat betetzeko guraria dakarrela diñosku.

7) Aurtxo II

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK argitaratua dogu liburu au be eta ez euskerea ikasi nai daberen elduentzat, izenak berak diñoan lez umeentzat baiño.

Liburua 1968an argitaratua da, Bizkaiko Aurrezki Kutxa laguntzaille dala, eta egilleak Muñoa ta Orbea tar Itziar eta Foruria ta Arteta tar Jose Erramon.

8) I, II eta III ingurraztiak

Euskerea irakasteko alegiñak egiten jarraitzen dabegure argitalpenak. **EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN** elburu bat: Irakurgaiak euskerea ikasten eta erabilten laguntzeko dira.

9) Irakurgai errez politak (amairu irakurgai, bost liburutan)



10) Euskalerriko ipuiñak (I eta II)

Beobide tar Jose Luis aita karmeldarrak jarri dauz ipuiñak Bizkaiko euskeraz. Ipuñak idazle ospetsu-
engandiak artuak dira eta.

Ipuin liburu bi oneik ez dira umeentzat egiñak, baiña umeak irakurteko be egokiak dira. Irakurleak euskera dakienak eta obeto ikasi nai dabenak izan daitekez.

11) Yanoz elebarria

Zubiri tar Iñakiren elebarria da. Elebarri onetan euskaldunen eta akitaniatarren arteko artu-emonak aztertzen dira eta elebarri oso irakurgarria da, aspertu barik irakurten dana.

12) Urrats olerki-liburua

Paulin Solozabal olerkari ugariaren idatzia da. Bizitzako egoera ezbaridiñak dabezan olerkiak dira.

Euskerazaleak alkartearen urteroko ekintzak

Ipuin-sariketa:

Aurten osotu dogu 29 urte ekintza onetan. Urte guztietan lez eginda, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza eta babesagaz, au izan da aurtengo leen saritua: Legarreta tar Asier.

Euskal Astea:

Ekintza onetan 32 urte bete doguz. Azken Euskeraren Astean berbaldiak izan dira nagusi.

Egutegia - Takoa bizkaieraz:

Lan au orain 35 urte inguru gabiltz egiten.

Irakaskintza:

Aurten bete dogu 42garren Ikastaroa Bizkaieraz, iru mailla eta alkarrizketa.

“ZER” Aldizkaria:

Ekintza au 1977. urtean asi ginen, orain dala 33 urte. Eta illero agertu da.

Euskerazaleak interneten

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN web-orrialdea: www.euskerazaleak.biz

Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz Web orrialdea bideratu genduan. Eta orri onen eukia auxe da:

- 1) ZER aldizkari guztiak katalogatuta dagoz zenbaki, artikulu edo ta euren egilleak konsultatzeko moduan (360 aldizkari).

- 2) Andoni Urrestarazuren, “Umandi” ezizenez, Asmo-Iztegia be konsultatu leike. Umandik egindako 350.000 fitxak bildu doguz.

- 3) Liburutegiko sallean eskaneatuta daukaguz EUSKERAZALEAK ALKARTEKO partaide izandakoen ainbat lan eta idazki. Esaterako, Aita Lino Akesolo, Aita Santi Onandia, Agustin Zubikarai, Bixente Latiegi, Iñaki Zubiri, Martin Olazar, Paulin Solozabal eta abar.

- 4) Lengo urteetan “Bizkaierazko Tako”a argitaratu dogu BBKren diru-laguntzaz. Baiña urte onetan Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz.

Beste barik, eskerrik asko.

Angel Larrea Beobide

Oarrak. Larrea ta Beobidetar Anjel, Zeanurua (Bizkaia) jaioa da 1960 urtean. Filosofian eta Letretan doktorea (1.993), Historia espezialitatean, Deustuko Unibersitatean. Historiako Irkaslea da Arratia Igorre(Bizkai)ko Institutoan gaur egun.

Larrearen itzaldi ostean, Mendebaldeko Lendakari Barrutiatar Enekok tailugintza polit bat emon eutson Barroetar Klaudiori eta onek alaitasunezko umore onean, bertso batzukaz eskertu ebazan Mendebaldeko Alkartekoak.

Barroeta tar Klaudiok bota ebazan bertsoak onek izan ziran:

**Bazkide izenean,
esker ugariak,
atsegiñak bai dira
olango sariak.
EUSKERAZALEAK dauz
asmo eder onak,
gaur ta aurrerantzean
egiztatzekoak,
tinko jarrai dagian
beti Bizkaierak.**

Onenbestez amaitu zan MENDEBALDE ALKARTEAK, EUSKERAZALEAK ALKARTEARI eskeñitako GORAZARREA..

**Bilbon, 2.010ko Maiatzaren 8a.
Idazkari: Atutxatar Paul.**



Lea bailara ezagutzen

Bizkaiko mendirik garaienean sortzen dan eta berau itsasoratu arte, Lea erreka aspalditik zeharkatzen dauen lurraldeari deitzen joko Lea Ibarra. Halandaze, erreka baten izenak eta izanak taxututako bailara dogu. Kantauri Itsasoak edo Bizkaiko Golkoak mugatzen dau iparraldean, Durangaldeak hegoaldean eta alde banatan; hau da, ekialde eta mendebaldean, Artibai ibarrak eta Busturialdeak eta Urdaibaiko biosfera naturalak.

Administratiboki, Bizkaiko lurralde historikoa osotzen dabenean zazpi eskualdeetatik mendebaldekoenean dago lurralde hau, Gipuzkoatik hurrakoenean, hau da, **Lea-Artibai** deitutakoan.

Zazpi udalerrri batzen dira Lea ibaiaren arroan, hegoaldeetik hasita, **Munitibar, Aulesti, Gizaburuaga, Amoroto, Mendexa, Ispaster eta Lekeitio**, hurrenez hurren. Lehen bost udalerriek, **ezaugarri geografikoak** eta sozioekonomikoak oso antzekoak izanda, alkarrari modu estuan lotuta dagoz, eta hartu-emon sendo horreek Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoa sortzera eroan ebezan.

Malkarrez, muinoz eta tontorrez jositako eremua da Lea Ibarra. Ibaia lerro zuzen bihurtzerik egongo balitz eta **Oiz menditik itsasora** bitarteko tartea neurtuko bagendu, hogeikilometro eskasetan Oitik 1.024 metroko altuera-aldea eukiko geunke, altuera aparta!

Lea Ibarrean lur lau gitxi dagoz. Izan be, **Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoa** osatzen dabenean bost udalerrietatik bi –**Amoroto eta Mendexa**– tontorretan eraikita dagoz, eta ganerako hirurak –**Gizaburuaga, Aulesti eta Munitibar**– mendien magaletan.

Ba da, hala ere, eremu baxu eta hondartsurik. Paraje gozoak eta gailur zelatariak, itsas usaina eta mendi haizea, nekazaritza eta arrantza giroak plano berean...

Bertaratzen garenean **naturaren aberastasunez**, kontrastez eta liluraz betetako lurralde zoragarria begitanduko jaku.

Izena eta izana: Lea erreka, Oiztik Mari Errotaraino

Lea erreka Oiz mendian jaio eta Maria Errota deitzen dan itsas errota zaharraren paduretaraino luzatzen da. Edertasun natural handiko eta populazino-dentsidade txikiko lurrak bustitzen dauz bere ibilian. **Bizkaiko erreka garbientako** bat izateaz ganera, ur guztiz edangarria daroa ubide osoan zehar.

Oiz mendiaren iparreko maldetan dau iturburua eta ipar-iparreki alderako noranzkoarekin egiten dau aurrera, **Munitibar, Aulesti, Gizaburuaga, Amoroto, Mendexa eta Ispaster** zeharkatuz, eta Lekeitioko itsasadarrean itsasoratzen da.

Ikustekoak

Bizkaiko eskualde ezezagunenetakoa dan honetan hainbat toki dagoz harrituko gaituezanak. Horreek ikusteko bailara guztia zeharkatzen dauen Leako oinezkoentzako ibilbidea egin daiteke (informazio gehiago, www.leaibarra.com). Bost udalerrri zoragarri, baxotxa bere berezitasunekaz...

Munitibarren, Oiz mendipean dauen kokapen estrategikoari esker, naturaz gozetako hainbat txango egin daitezke. Holan, Lea ibaiaren sorburua bisitatu geinke, edo Bizkaiko begiratokitik Urdaibai ia osaren ikuspegi panoramikoaz gozatu geinke. Herrian bertan, Bengola energia barriztatzailen parkean paseo bat emon eta etorkizuneko energien ganean zeozer ikasi geinke.



Aulestik interes historiko eta kulturalako hainbat toki eta eraikin daukaz herrigunean (herriko plaza, San Juan eliza, inguruko jauregiak...), baina batez be daukazan landa zabal eta auzoetako baserri sakabanatu zoragarriek harrituko gaitue. Holan, naturan murgilduta paseoa emoteko herri ezinhobea da, herriak berak eskaintzen deuskuzan aisialdiguneetan atsedena hartzeko eta eguna pasetako; esaterako Errekondo parkea, erreka ondoan dagoen bainugunea umeentzako jolasguneagaz, edo pagoz inguratuta dagoan Urregarai mendiko aisialdigunea.



Gizaburuagak ondare artistiko eta arkitektoniko aberatsa dau. Besteak beste, Santa Katalina parroikia ikusgarria eta Oibarko ama birjinaren ermita dotorea. Ondare arkitektonikoari jagokonez aitagarriena Bengolea torretxea da; egun jauregi barrokoa, gune berean Euskal Herrian aurkitutako burdinola garrantzitsuenetakoa dana dago.



Amoroton aitagarria da herriguneko plaza dotorea, baserri eta eliza ikusgarriek babesten dabena. Plaza bezain dotoreak dira inguruan daukazan baserriak, esaterako Iturraran Behekoa baserria. Ganera, baserri gehienek kalidadezko arkitektura daukie eta inguru guztia zaindu-zainduta dago.



Mendexako leku erakargarriena, zalantza barik, Karraspio hondartza da. Garraitz irla begien aurrean, bizkaiko kostaldeko areatarik politenetarikoa da, ondean aisialdigunea dauena. Mendexako lurak Lea ibaia itsaroratzen dan tokian hasten dira, Arropaingo padura zabaltzen dan lekuan, bertan txori migratzaile espezie ugari atsedena hartzen dabelarik. Padura honetan dago Maria Errota errota zaharra, XVI. mendekoa, mareen bidez funtzionatzen ebana. Errotaren aurrean, erreka-aren bestaldean, Leako antxinako untziolak dagoz.





Lea ibarrean, egoitza berria zabaldu dute "Oizpe Egoitza"

Egoitza, paregabeko edertasuna dauen tokian kokatzen da, Munitibarren, Urdaibaiko Biosferaren Erreserban. Ingurune egoki honetan, bertan dagozan pertsonak giro pribilegiatu batean bizi eta gozatzeko aukera izango dabe. Lea ibaia, mendia... natura bere onenean: kalitatea eta ongizatea. Egoitza, bizikidetasun zentro bezala pentsatua, nagusientzat aldi-baterako eta behin betiko etxebizitza moduan eskaintzen da.

Aintzane Etxebarrieta Oizpeko bazkidearengana jo dogu informazio bila.

Ondo prestatutako ekipamendua eta langileak dauz Oizpe egoitzak, bertan dagozenei bizi kalitatea eskaintzeko.

Munitibarren dago Oizpe egoitza, Olabarria kallean, Gernikarako bidean. Erdigunetik hurbil kokatzen da, eta errepidea dago bertaraino, oraintsu egin den pasealekuarekin. Kokapena ezin egokia da, hirietatik aldentuta baina erraz ailegatzeko moduan. 99 plaza dabez prest.

ZER.– Norentzat edo nortzuentzat da Oizpe egoitza?

Aintzane Etxebarrieta.– Nagusiekaz pentsatuta egin dogu, baina hortik aparte, gu ahaleginduko gara beharrezana daukiten guztiei eskaintzen. Horrek esan nahi dau, adibidez, ebakuntza egin eta etxean geratu ezin dan pertsonagaz pentsatzen jarraitzen dogula guk, eta egoitzara etorri ahal dala. Horrez

gain, urritasun motaren bat daukien pertsonak ere atek zabalik daukiez. Argi itzi nahi doguna da balorazioa egin eta gero pertsona batek gure beharrezana daukala ikusten badogu, guk ez dogula inoiz kanpoan itxiko. Bestalde, adin mugarik ez dago.

ZER.– Ze lako instalazioak dauz?

A. E. – Apustu gogorra egiten dogu, eta azken teknologia sartzen ahalegindu gara. Horrez gain, danetariko instalazioak eukiten ahalegindu gara, jendea eroso egon dadin. Batetik, gure instalazioak familia eta bertan dagoen pertsonaren ezaugarriek eskatzen dabenari erantzuteko prestatuta dagoz. Erabiltzen dan teknologia eta ekipamenduak, egokiak eta abangoardiakoak, konfortik handienerako pentsatuta dagoz, etxean modura egon daitezen ahalegindu behar gara, bizi kalitate onagaz eta behar daben zaintza jasota. Eta, jakina, dagoen parajea egonda, kanpokoan daukienakaz ere disfrutatu ahal dabe.

ZER.– Zelako ekipamendua daukazue?

A. E. – Gela handi-handiak dira, banakoak nahiz bikoitzak. Geletan egokitutako komunak dagoz, telefonoa eta telebista, eta deitzeko txirrinak. Horretaz gain, gimnasioa, errekupeazio eta okupazio terapia gela, aretoak, solariuma, egongela, telebista gela, irakurketa gela eta liburutegia, ordenagailu eta internetarekin. Trakil ibiltzeko, 10.000 metro koadro baino gehiagoko lorategiak dagoz. Ikerketa gela be badago, beti ere familiaren baimenarekin. Berrikuntza modura, zentzumen anitzerako gela dago.

ZER.– Zer da sentimen anitzerako gela?

A. E. – Euskal Herrian hirugarren adineko egoitzetan dagoen lehenengoa da. Orain arte, autismoak, down, paralisis zerebrala dabenakaz erabiltzen zan batez ere. Hirugarren adineko jendearekin ere eragina dauala ikusi da, eta gu horretan saiatuko gara. Gehien bat Alzheimerra, Parkinson, dementzia mota ezberdinak edota gaixotasun neurofisiologikoak dabezan jendearekin erabiliko dogu.

ZER.– Zelako prestakuntza daben langileak daukazuez?

A. E. – Behar diren guztiak: medikua, psikologoa, erizaintza, gizarte-langile eta hezitzailea, fisioterapeuta, geriatriako laguntzailea, aisialdiko monitorea, gobernanta, garbitasunekoak, sukaldekoak, administrazioakoak, podologoa eta ile apaintzailea. Guztiak hemengoei bizi kalitatea eskaintzeko.

ZER.– Nola jaso ahal da informazioa?

A. E. – Gure telefonoa hauxe da: 94-616 41 35. Horra deituta edo www.oizpe.com web orrian behar dan informazioa emongo da.



Ondo prestatutako profesionalen taldea



Gimnasioa eta errekupeazio gela



Banako gela



Zentzumen anitzeko gela berritzailea.



Jangela

Adiñekoakaz Italiaren bealdetik txangolari IV



2.009an Dagonillaren 28an.

6´15renetan jagi giñan 7retan gosaria artzeko eta 7´30etan berebilbusera igonda PONPEYARA joateko.

Bidean goazela, masti asko ikusi nebazan palar edo zurrunezko¹⁰¹ antolamenduan eta urretx, arto, ale-ekarle edo igali-zugatz, eta olibondo amaigabeko arloetan.

Lur asko, larre, lurgorri edo larrakan¹⁰² daukiez, eta baratzetan eneban atsegiñezko lanik ikusi.

Mendi inguruetan: Aretz, ametza, artea, eta azkasi ugari ikusi nebazan.

10etan, bideko geraleku baten geratu giñan, eta piz egin, kafesnea edan ta kebelarra erreta, 10´15en-tan ostera igon gendun berebilbusera Apeninoren mendi-kate bien artetik aurrera egiteko.

Kanpaniako lurraldeetatik aldatu giñanean: Kiwi eta intxaur asko ikusi neban, eta oartu be aberatsak zirala kebelar, limoi ta urrezko sagar edo laranondogaz.

Mari Josek, Besubio su-mendia aurrez euki gendula: 1.944an bota ebezala askenko arrigesal, arri-urtuak, edo berak esan eban lez, Besubioren salda beroa, eta estanda orreik 40 urteko epean inguru aukeratzen diran lez, orain dala denborea bereak egin dagiezala.

11´15renetan eldu giñan Ponpeyara eta Mari Josek, Ponpeyan gure gidari izango zana, Adelaida, neska poli ta atsegiña aurkeztu euskun.

Adelaidak, txartelak emoten ebazan sarreran asi zan bere lanetan eta: Itsasoz gain 40m. inguru

kokatuta dagoan Erri onek, zabaltasunean 62 eun-areta edo ektarea daukazela esan eban.

K.a. VIIIn. Gizaldea Etruskoak Kanpaniatik zabaltzen ibili ziranean jendetu ebala gain-gaiñezko ikustoki eder au, Sarno ibaiaren urak itsasoratu egiten diran urbil, eta itsasgizonak aberats-toki baten biurtu ebala.

Ponpeyako erria, itsasinguruan eder-bitxi bat izatea-gaitik, gogo askotarako tentalaria izan zan, eta edes-tian orregaitik euki ebezala aldakuntza aundiak.

Kumas griegoen eragipenean¹⁰³ egon ziranetik, K.a. 425ean Samnitasen menpekotasunera aldatu ziran, gero Adelaidak erakutsi euskun lez, euren arrasto edo atz asko itzita.

Erromatarrek jo eben eraso aldian, Samnitak menperatuta geratu ziran, eta Grezia¹⁰⁴ ta Erromatarren arteko guda-punikasetan erromatarren alde leial edo zintzo jokatu ebelako, beti izan ziran euren izkuntz ta euker oiturazko askatasunaren jabe, areik eta K.a. 89an, Erromako gizartearen borrokatan¹⁰⁵, kaizertzaren aurka agertu ziralako¹⁰⁶, Silak bederatzi urte inguratuta euki eta menderatu ondoren, “Kolonía Kornelia Beneria Ponpeyana” izen barria ipini eutsuen arte.

Ortik aurrera eta urte gitxi barru, Erromatar aberatsen egotezko¹⁰⁷ jator-leku lez geratu zan.

Augustok bere denboran, erriaren itxura edertu eban garrantzizko aldakuntza batzurekin, eta ez ezagutzen diranak Kaligula ta Klaudioren denborakoak dira.

(101) Masti asko Palar edo zurrunezko antolamenduan = viñedos deparra. (102) Lurgorri, Larraka, larre’an = barbecho, tierras en reposo. (103) Eragipenetik = influencia. (104) Guerras Pùnicas = Las tres guerras que Cartago tuvo con los Romanos: 264-241, 218-201, 202- acabando con la destrucción de Cartago en el año146 a.C. por Escipión Emiliano. (106) Luchas por el poder entre Sila y Mario, muerto este el 88 a.C. (107) Egotezko = residencial.

K.o. 20n urtean Estrabon geografoak, Besubio sumendia betiko itzalita egoala esan eban

Ponpeyaren izena edestian aipatzeko, gertakizun garrantzitsuena baiña, Tazitok bere "Annales"etan esaten dabena da antza: K.o.59an Ponpeyako anfiteatruan ezpatakari-borrokak ikusten egon ziranak, bata edo bestearen alde egotegaitik, Ponpeikoak alboko erri Nozerakoakaz egin eben odolezko-borroka latza izan bear izan eben, Erromako senatoreak 10 urteko epean debekatu egin ebazalako jolas-toki edo anfiteatru orren jokoak.

Ponpeyak, K.o. 62n urtean, gertakizun orrein iru urte beranduago eukiko ebazan, gero 7an Dagonillaren 24an Besubio sumendiak egingo ebenagaz, lenengo oartaraziko lurrikara gogorrak, garbitu ta gero gaur ikusten diranak.

Eta Ponpeyatarak, oraindiño lurrikararen kalteak konpontzen egon zirala, Besubio sumendiak estanda egin ostean, 7m. gain-aldeko eutspean obiratuta geratu ziran .

Sumendi orren autsak izan ziran erria ta erritarrak ito edo il ebazanak eta gertakizun orreri ezker daki-gu, bertan sortu ziranakaz.

1.748an Borboitar Karlos, gero Espainako errege IIIIn.Karlos izenagaz izango zanaren agindupean asi ziran, gaur ia guztiz agertuta dagoan Ponpeyaren garbiketak, eta arrigarrিতa geratzen da bat, egin diran lanakaz.

Ingurua ikusten gabiltzala, kanpotarren billaketarako iragarkietan euki ebazanidazpuru edo marrazki berezi askorekin oartu gintzazan, baiña bategaz barre egin gendun, naikoa esan arte.

Adelaida gidariak erakutsi ta gero, Taldeko andra batek, gizon-zakilla arrian xixelkatuta ikusi ondoren esan eban: Gu baiño argiagoak izan bear izan ebenak, gorputzak daukaguzan gauzak berezkoak izan da, or gabiltzalako

lotsatienak egiten pekatua izan balitz bezela ostondu ezinik. Begitu! begitu ! auek zelan konpontzen ziran, zakil ori iragarkituta artez artez, iñori



itandu barik urdaska edo ema-galduaren etxera joateko.

Eta arrizko zelaian, burtxirrikak itzitako aztarnak, munduan dauazan su-gurdi edo tren guztiak txirrikaren artean daukezan neurria dala, esan euskun.

Erri ederra izan bear izan eben, Adelaidak bere erakutsiko azalpenetan, gure buruetan iruditzen ebanagaitik, eta benetan ederra izan zan nik erositak: "Bir-Eraikitako Ponpeyako" liburuak erakusten dauskuenagaitik.

Ainbat argazki atara nebazan, baiña ikusteko daukadan agerkai ederrena, liburuak berak ekarten dauan DVD´a da.

Erretako erritik urten gendunean, ordu erdiko epea emon euskuen zeozer edan eta norberaren bearrak egin da 1´1/2etan berebilbusera igoteko.

Ordu bietan eldu giñan Sorrentora, eta TASSO jatetxera joan giñanbaskaltzera.

Sorrentoko TASSO jatetxe au, Italiak euki eben olerkari aundienetariko baten, 1.544-1.595 urte bitartean bizi izan TASSOtar TORQUATOren jaiotetxea da.

Leku on ta garbian onbaskaldu gendun urdaiaz-piko, gazta, tomate eder eta Solaro ardoagazasita, eta 3´30etan akeita artu ondoren, ingurua ikusiaz batera erosketetan ibili giñan.



Gero diamantitsasbazterretik¹⁰⁸, Kapri ugartera joateko dagon portu edo kaialdera 45 km. dagozela esan euskun Adelaidak eta 2.945 okergune daukazan bidetik joanda, Apeninoseko Laktari-mendiak daukan POSITANO ikuslekuan geratu gintzazan, Salermoren urgolko ta inguruak daukazan edertasunak ikusteko.

“Torre Anunciada” deritson gaztelu¹⁰⁹ aundiren aurrean geratu gintzazan orduerdiko epean, inguru ikusi ta zeozer artuta berebilbusera igoteko.

Nik, gaztelua ikusten emon neban denbora guztia, eta ikusi be, argazkiak atara neutsezan an egoan borontzezko irudi bitxiari be.

6´30etan urten gendun Napolesera joateko, eta orain Besubio sumendi ederra atzealdetik ikusten gendun.

7´30etan eldu giñan “U.N.A.” & Resorts Amerikar kateak daukan “Napoli ostaletxera”.

Adartxarra emon eustan Napoleseko sarreran ikusi nebanagaz, zikinkeria nunnai egon zalako.

Berebilbusetik beratuta fardelak artuta ostaletxe-

an sartu gintzazan, logelaren giltzak artzeko.

Eta Mari Josek bitartean adiarazi euskun, logelan euki genduzan diru

kutxak erabilteko, eta kalera joaten gintzazanean, dirua ostonduta eroateko,

“Napoles´en, zapatak kendu barik, gal-tzerdiak ostuten ebezalako”.

Guri, 214n. gela egokitu jakun, eta ostaletxea adiñetan sartuta egon arren, naiko apainduta ta garbi egon ziran ostalaren arrera ta logelak.

Gure garbigelan ozkirritu apur bat egin, eta 6n. solairuan dagon jangelara joan gintzazan afaltzera.

Sei lagunentzako maiak izan ziran jantokian apainduta egon ziranak, eta gu ezarri gintzazan maian: Manjarrestar

Pedro, gizon alai benetan, bere emazte Bartolometar Milagros, Gallotar Mertxe, Angulotar Mari Karmen, Barroetatar Lourdes nire emaztea eta ni.

Babarrunaren itxura euki ebazan makarroiak, izkira edo ur-zorriakaz¹¹⁰ egosita emon euskuezan jateko.

Pedro´k, azpil edo plateran atara euskuezan makarroiak begira egoala, urzorri txiki baten buztena bakarrik aurkitu eban, eta niri erakutsita, nik ia zenbat aurkitzen nebazan itandu eustan. Nik be bat bakarrik aurkitu neban, eta konturatu giñan bakotzak bat bakarrik eukala.

Gaiñerako, egalabur edo zimarroï apur bat atara euskuen, eta mai-azken lez, gozoopil bat¹¹¹.

Makarroiak ez ziran txarto egon, itsas aogozo apur bat eukelako, eta zimarroïa, itsas-arraina atsegin daukanentzat, bera be gozoa dalako. Arazoa baiña, lauortzakadaren¹¹² ekintza bategaz amaitzen zala. Eta urzorriaren kontura ainbat txantxa egin eta berari argazkia atara ondoren, lotara joan gintzazan.

(108) Diamant-itsas-bazterretik = costa de dimante. (109) Gaztelu oneri = Arrautsaren gaztelua-be deitzen dausie “castillo del huevo”.

(110) Izkira, marizkira edo uz-zorria´kaz egosita = cocido con gambas. (111) gozo-opil = tarta (112) Lau-ortzeko = tenedor.



2.009an Dagonillaren 29an.

7retan jagi giñan 7:30etan gosaria artzera joateko, eta 8rak eta 15retan berebilbusera igonda Napoles ikustera joateko.

NAPOLIS: Kanpaniako lurraldea da, beren 1.171 km laukonderekin eta 2.871.663 biztanleagaz. Eta Napoles bere Uri Nagusiak 1.223.927 biztanleakaz.

Tirrenoko itsasoa da aurrean euki genduna, eta Tirreno itsasadar edo itsasgolkoan dauka bere kaia, Besubio sumendiaren urbillean kokatuta.

K.a. VIIIn. gizaldian, Griegoak koloni-lez irasi ebena, eta bere lurretik ibili ziranak: Parthenope, Paleapolis, eta Neapoliseko izenak ipini eutsezan.

K.a IV gizaldian, Erromatarrak menperatu eben, eta Ostrogodoak K.o. Vn gizaldiaren askeneko urtetan.

535ko urtean, Bizanzioko Kaizertzaren mendean geratu zan, eta apurka apurka eurengandik urrun-tzen joanda, 763n urtean askatasunezko dukaterri lez geratu zan.

1.139ko urtean Normandoak mendetu eben, eta 1.265ko urtean IVn. Klemente Aita Santuak, Frantziako errege IX Luisen anaia Anjoutar Karlos, Napoleseko errege izendatu eben. Eta Benebentoko gudan Napoleseko dukea il da, lur guztia- ren jabe egin zan.

1.282an Epailaren 31n, Anjoutar Karlosek gortea Napolesera eroan ebalako, Siziliatarrak¹¹³ matxi- natu ziran, eta ainbeste milla frantzez gizon-ema- kume ta ume ilda, Aragoiko errege III Pedro izen- datu eben

1.442rarte Napoles eta Sizilia bananduta bizi zi- ran, areik eta Aragoiko V Alfonsok Napoleseko erreñuagaz egin arte.

1.494an Frantziako VIIIIn. Karlosek, Anjoutar Renatok berari aldatu eutsezalako eukezan esku- bideak, Italian sartuta menperatu eben, eta beren aurka: Aragoiko II Fernando erregea, Alemaniako Kaizerra, VI Alejandro Aita Santua, Benezia ta Milanegaz batera eraso eutsoen, eta 1.504ko urte- an Bloiseko egiune onartuazo-ta, Aragoiko errege- aren agintaritzan geratu zan.

1.707an Espainaren ondorengo gudagaitik, Austri- arrak, bi Siziliaren erregetza artu eben, eta 1.713an Utretxteko itun bidetik Napoleseko erregetza Austria´ko VI Karlos eta Siziliakoa II Amadeo de Saboyari emon eutsezan.

1.718an Espainako erregeak, Siziliako erregetza menderatu eben, baiña urte bi barru Austriatarrak osteria emon bear eutsen, bi Sizilia oiek Austriata- rren mendean geratuta.

1.734an, Espainako erregearen seme Karlosek menderatu eben osteria, baiña Espainako errege



Baiña, batenbatek esango daust, zelango NORTASUNA leuke erri batek, Napoleseko edesti au ikusita ?.

Europak, or dauka eredu ederrena ikusteko, eta jakiteko: "Nortasunaren ardura barik, ezin leikela iñora joan", edo gogorrago esan da: "Aurrera begitu". Indarrez ezarrita daukaguzanlaterri oneik, Napoleseko edestian sortu zan antzera, menperatzaillak diralako.

Munduko gizartearen jakintza eta agintarien ZENTSUTASUNAK, danoren BAITA oarkatu egiten dauskun zentsuagaz: "NORKERITIK ALDERATU bear dira, eta NORTASUNAREN ARDUREAN EGOKITU",

Giza-Mundu onek bestela, jai dauka denbora gitxi barruan.

9:30etan KAPRIko ugartera joateko urten gendun, eta eldu giñanean errien ostera labor bat eginda, Kapriko kaian Itsasontzi bat artu gendun, ugartearen itsas bazterrak arakatzeko.

Adelaida gidariak, Kapriren izena, basurdearen antza eukiteagaitik, Kaprosetik datorrela esan euskun.

Bere ugarteko ingurualde, 17km. inguru daukazela, 6 km. luzeran eta 4 zabaleran eta 11.200 biztanle. Iru auzunetan bananduta dagoela: Kapri, Maria Grande, eta Anakapri. Eta bere Solaro mendi aundienak 589m. daukazela goialderaiño.

Luzea egingo dalako, ez dot beren edesti eta daukazan edertasunak aipatuko, baiña bai esan: Bere ingurutik ibili giñanean, Izadiak daukazan indarrak zelango irudi bitxiagaz¹¹⁵ ederturik dago, ikusi daigun.

Bikoteari, musua emonazo euskuen morkaitzen¹¹⁶ orratz-begitik, naiko barre eginda aldatu giñan.

Eta Pedrok mendi gaiñean itsasoari begira eginda egon ziran etxeak ikusi ebazan orduan: Or bizi ? Ni, zoratuta be. Gabaz, piz egitera urtetandok apur bat jota eta, or oa ankazgora !.

III Karlosen izenarekin egin ebenean, 1.759an bere seme Fernandori emon eutson Bi Siziliaren agintaritza, baldintza gogor bategaz: Erregetza ori, Espainako erregetzan ez zala lengoratuko iñoz.

1.799an Frantzezak sartu ziran, eta bere lurraldea bost illabetetan iraun eben Republika Partenoepa lez izendatuta.

1.806ko Epailan Napoleonek bere Jose anaia izendatu eban errege, eta 1.808ko Uztaillan, Murat bere gudar-nagusi bategaitik aldatu eban I Joakinen izenagaz.

Espainako errege VII Fernando egin zan Siziliako erregetzagaz eta 1.815an Bienako biltzarrak Napoleseko agintaritza emon eutsoen.

1.860an Napolitarrak Garibaldiren agindupean matxinatu ziran, eta or amaitu ziran Borboiaren agintaritzak.

Eta, 1.861ean Italian egin zan erriautarki bidetik, aurrerantzean Italiako errilez geratu zan.

Napolesen ondore laborra.

Goian esaten asi nazan lez, Napoles: Loia, errikozerbitsuak ganora barik, beartuta ainbat izkuntzan berba egiten dan erria, lapurketetan oituak,

Eta Nortasunbako BAITA¹¹⁴ daukiela, argi ta garbi agertzen dabe.

(114) Nortasun-gabeko BAITA = conciencia sin personalidad o confusa. (115) Irudi bitzia'kaz = curioso, raro, churriguesko, recargado de adornos. (116) Morkaitz orratz-begitik = peñon alto y tajado.

Ordu batetan batu gintzazan bazkaltzera joateko, eta ederto emon euskuen jaten: Ugolo, irris edo arroza olagarroagaz egosita eta olagarroa erregosita, gaiñean, esnearrozagaz gura ebenentzat, eta sagar ale, laranja edo urresagarra bestientzat.

Akeita ta txola gozoa artuta, arrikazkorezko itsasertzera joan giñan, anakak uretan sartu eta txan txako solasean denbora emoteko.

Geienak damu giñan, uger egiteko jantzirik ez genuelako eroan, uraren berotasuna 27°an egonaz.

6:30etan urten gendun itsasontzian Kapritik Napolesera joateko, eta 8rak lauren gitxiagotan ostaletxera eldu.

8:30etan afaltzera joan gintzazan, eta afal ostean seigarren jangela

orrek euken ikustoki ederretik, Napoles ikusi ta solasederreanean denbora paso gendun logelara joan arte.

2.009an Dagonillaren 30ean.

8:30etan gosaltzeko jagi giñan, oporeguna lez etxerantza etorri aurretik, Napolesek daukan arraiñ, aragi, baba, sagarrale, laranja eta janzteko jantzi ta zapata azoka aunditik egurasten ibilita, kanpoaldetik

lau-izar daukazan OTEL SAN MAUROn 12:30etan bazkaldu gendun “Falan Epina Benebentano” ardozuri oso gozoagaz.

Napolestik, 4rak eta 25minuetan urten gendun Bruselaserantza eta 7retan elduaz bertara.

9retan urten gendun Bilborantza, eta ona eldu giñanean, an egon ziran alabak itxaroten.

Lagunekaz agurtu gintzazanean, atara nebazan argazkiak bialduko neutsoela esan neut sien, eta alan geratu giñan.

BIDAI ATSEGIÑA BENETAN.

**Atuxtatar Paul
Zornotzan 2.009an Urrillaren 1ean**





I ntza

Kristau eskutukia
bateoko arrian
osotu zan goizez;
usoa ez zan izan
ura ta itzak baiño
adierazmenez;

Edurra baizen zuri,
geratu da aurtxo...
nor eldu da zukan?
seme barri ein zara,
Jainkoaren atsegin
nortasun zurian.


Lorarik ederrena...
aurtxo aingeruzkoa
gaur biurtu zara;
zeruko aingeruak
begira zendukezan
osasan barrian.

Paulin

olerkia

Euskaldun barrientzat

Zazpi utsak



Ikasten



ARPIDETZAKO TXARTELA


ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar'
..... kalean (auzoan) zenbakian
..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,
an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Aulesti, Santa Eufemi ermita



Aldapeko sagarraren
adarraren puntan
puntaren puntan
txoria zegoen kantari.
Xiru - liruli, xiru - liruri,
nork dantzatuko ote du
soinutxo hori?

Zubiburu zelaieko
oihanaren zolan,
zolaren zolan,
lili bat bada beilari.
Xiru - liruli, xiru - liruri,
nork bilduko ote du
lili xarmant hori?

Mende huntan jasan dudan
bihotzeko pena,
penaren pena,
nola behar dut ekarri?
Xiru - liruli, xiru - liruri,
zuk maitea hartzazu ene pena hori!